

## Guggenheim Urdaibairen auzia

Herri iritziaren arrakasta politika instituzional irrazionalaren aurrean



2008an Guggenheim museoa Sukarrietan kokatzeko lehen asmoa plazaratu zen. Hamahiru urte geroago, 2021ean, Bizkaiko Foru Aldundiak proiektua Gernikan eta Muruetan kokatu nahi zuela iragarri zuen, eta prozesu guztia abiarazi zuen. Bi urte geroago, *Guggenheim Urdaibai Stop* plataforma jaio zen. Iazko abenduaren 16an, museoaren patronatuak iragarri zuen behin betiko uko egiten ziola museoa Urdaibain kokatzeari. Nola izan da posible erakundeen arabera, ia kosta ahala kosta gauzatu behar zen proiektua birplantatzea? Gutxitan gertatu da hori.

Bego Landa Torre, plataformaren partaide aktiboa izan da eta Alkartasuna aldizkaritik, bere bidez jakin nahi izan ditugu auzi honen nondik norakoak.

Gaiari hasieratik helduta, Landak gogoratzen du aspalditik erakundeetan aurrekariak bazeudela eskualdean turismoari lotutako zeozer egiteko

norabidean. "Saiakera ezberdinak egon dira gure eskualdean bide hori jorrazteko. Gogoratzen dut egitismo bat zegoela Muruetako ontziolaren inguruan kirol-portua ezartzeko. Dena zeukaten gauzatzuta. Maketa bat eta guzti jarri zuten Foru Aldundian ikusgai. Handik urte gutxitara, Bizkaiko Foru Aldundiak iragarri zuen Sukarrietako kolonietan Guggenheim museoaren atal antzeko bat izango zen zerbait egingo zela. Azkenean hori ere ez zen gauzatu, beharbada eraikina BBKrena zelako".

Landaren esanetan, aurrekari horiekin, hau da, hainbateko danbatekoekin, ez zen zaila izan Guggenheim Urdaibai Stop plataforma eratzea. "Eskualdean adi egon behar ginen edozein burutazio ateratzen zuten momentuan erantzun sendo bat emateko", azaldu du. Baina sarritan honelako plataforma bat sortzen denean, politizatua dagoela leporatzen zaio, ekimenari balioa kentzeko helburuarekin. Alderdiren batek edo korrante politiko batek

erabiltzen duela herri mugimendutik gobernua higitzeko. Batzuetan horrela bada ere, kasu honetan, Landak une oro ekimenaren aniztasuna defendatu du. "Eskualde guztiko talde, elkarte, eta norbanako ezberdinak lotu gara mugimendura, eta horren ondorioz, herriaren erantzuna izugarria izan da". Gehitu du ibilbide honetan babesa eta laguntza kanpotik heldu zaiela ere. Aipatzekoa da, beste batzuen artean, Greenpeacek Urdaibai zaintzeko burututako kanpaina.

Aurrean, "bai ala bai", ezarri behar zen biosferaren erreserba batera 150.000 turista erakarriko zituen plana. "Aitortu behar dut ni ere, ez nintzela oso baikorra gai honetan. Alde batetik Agirre Lehendakaria Centerretik egindako lana txukuna izan da, baina EAJk nola jokatzeko duen ezagututa, Guggenheim sasi guztien gaintetik ez ote zen burutuko zalantzak nituen. Are gehiago, harrokeriaz egindako Elixabete Etxanobe, Bizkaiko Foru Aldundiko buruaren adierazpenak entzun eta gero". Horretan oso argi du Landak: "Turismoa gehiegizkoa da jada gurean. Erantzuna hain izan da indartsua, ez direla ausartu aurrera eramatera". Landaren aburuz, funtsean arazo larri bat dago. "Herriaren iritzia ez da inoiz arazoa izan arrabola gaintetik pasatzeko bestelako interesak egon direnean. Beharbada, norbaitek gertatu denaren analisi zintzoa egingo du noizbait, eta jakingo dugu benetan zein den atzera botatzeko arrazoia", gehitu du.

Aipatu bezala, ezaguna da proiektuarekin ez jarraitzea erabaki zuela patronatuak. 2023an, Espainiako Gobernuak 40 milioi euro konprometitu zituen Guggenheim Urdaibairentzat. Bizkaiko Aldundiak beste 40 zituen gordeta 2022tik. Busturialdea-Urdaibai eskualdeko langabezia-tasa %8 ingurukoa da. Eta orain zer? Ireki daiteke aukera-leihorik?

"Urteak daramatzagu gure egoera salatzen. Ekonomiaren aldetik Busturialdea oso egoera kaskarrean dago. Ez daude aukerarik. Enplegu kualifikatua falta da batez ere", ohartarazi du Landak. Hortaz, bertako bizilagunek beste eskualde batzuetara joan behar izaten dute, eta garraioetan eta mugikortasunean ere badu eragina. "Goizetan Bermeon Sollubera edota Gernikan Muxikarako



***La clave del éxito de la plataforma Guggenheim Urdaibai Stop, ha sido que nos hemos unido grupos, asociaciones y particulares de toda la comarca. La respuesta a sido tan potente que no se han atrevido a poner el museo***

errepidean jartzen bazara, exodoa ematen duen egoera ikusi ahal izango duzu. Beste eskualdeetara doazen kotxe ilarak ikaragarriak dira". Egoera hausnartuta, aukera ikusten du, eta aukera ikusi nahi du plataformako kideak. "Adibidez, egunotan "13 proiektu gure eskualdea eraldatzeko" izenburua daraman liburuxka bat jaso dugu gure etxeetan. Askatutako milioi askoko inbertsio publikoa, Busturialdean kalitatezko enplegua sustatzera bideratu behar da. Baikorra izan nahi dut, eta Busturialdeko egoerak hoberantz egingo duela sinistu".

**Bego Landa Torre**

Gernikako EH Bilduko zinegotzi ohia.  
Gizarte gaietan eragilea